

uztarria

|||Azpeitiko herri aldizkaria |||2012ko uztaila |||141. zenbakia |||

NORBERA PROTAGONISTA

Etxeko nahiz ospitaleko erditzea
hautatu duten herriko hainbat
emakumeren testigantzak, Uztarran 20

Udako promozioa 2012



W 3240 LW garbigailua

- 1-6 kg arteko altzairu erdoilezineko Softtronic tanbor eskusiboa.
- Zentrifugazioa: 400-1400 erreboluzio minutuko.
- Bukatzeko falta den denbora adierazten du.
- Etiketa energetikoaren arabera saikapena: A+ A B

Berezko prezioa (zergak barne) **1.095,09 €**



Uda garaiko prezio gomendatua*

799 €



T 8402 C LW lehorgailua

- Kondentsazio bidezko lehorgailu elektronikoa
- 1-6 kg arteko altzairu erdoilezineko Softtronic tanbor eskusiboa.
- Energia aurrezteko Perfect dry lehorketa sistema.
- Etiketa energetikoaren arabera saikapena: B

Berezko prezioa (zergak barne) **949,09 €**



Uda garaiko prezio gomendatua*

799 €



G 4100 SC Ontzi garbigailua

- Mahai tresnertzat bandeja eskusiboa
- 6 garbiketa programa
- Ahalmena: 14 zerbitzu normalizatu.
- Zarata maila txikia, 48 dB(A) re1pW (DIN EN 607043ren arabera)

Berezko prezioa (zergak barne) **830,09 €**



Uda garaiko prezio gomendatua*

599 €



H 4314 B ED/Cist

- Arrastoen aurkako "CleanSteel" altzairu erdoilezin berria.
- Patentaturiko PerfectClean barrualdea.
- 8 funtzio
- 56 litroko barru edukiera.
- Atera daitezken gida teleskopikoak.
- 3 kristaleko CleanGlass atea (aurre hotza)
- Etiketa energetikoaren arabera saikapena: A

Berezko prezioa (zergak barne) **769,05 €**



Uda garaiko prezio gomendatua*

699 €



S 4212 Aspiragailua

- 2.000 W.ko potentzia maximoa
- Air Clean iragazkia
- Hautsa jasotzeko 3,5 litroko HyClean F/J/M poltsa
- Zoru mota denentzako SBD 450 eskuila
- SILENCE motako isolatzaile akustikoa
- Kolorea: Gorri Mangoa

Berezko prezioa (zergak barne) **195,76 €**



Uda garaiko prezio gomendatua*

159 €

Miele banatzaile ofiziala:



Milar Larramendi
Julio Urkijo, 16
20720 Azkoitia-Gipuzkoa
Tel.: 943 851 897

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
(Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
uztarria@uztarria.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 141.a (2012ko uztaila)
Urtea. XIII.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 730792 /
oalegria@uztarria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilerok
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Iban Etxezabal
Web orrialdea.
www.uztarria.com

**Uztarrria herri aldizkariaren
laguntzaileak** (erakunde
publikoak)



Gipuzkoako
Foru Aldundia



**Uztarririk
Bai Euskarari**

Oharra. Uztarrria
Komunikazio
Taldeak ez du
bere gain hartzen
herri aldizkarian
adierazitako
esanen eta
iritzien
erantzukizunik



2012KO UZTAILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



16



24



34

iritzia

Inkesta. Egingo al zenuke zezenketen gaineko galdeketa **13**

mamia

Urko Valverde.
Euskarazko bideojokoen merkatuaz eta horien erabileraz **04**
Klik! Corrugadoseko langileen greba egun bat, argazkitan **16**
Ekonomia hizpide.
Aitziber Arzallus eta Miren Garate, 'Berria'ko Ekonomia Saileko erredaktoreak **24**

jakiteko

Bestaldetik. Eider Alkorta, bidaia berriekin amets **34**


Ba al dakizu Eusko Jaurlaritzak ia baino ia 3.000 euro gutxiago emango dizkiola aurten uztarriari? Uztarrria

egin zaitez bazkide Uztarrarian




943 15 03 58

Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.060 bazkide **30** euro dira urtean.
gara dagoeneko Uztarrarian; 126.540 euroko aurrekontua du
eskerrik asko denei. Uztarririk 2012. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra'

URKO VALVERDE

bideojokogilea

“zailena da euskarazko bideojokoak saltzea”

Gestionet enpresan bideojokoak egiten aritu da hainbat urtean. Arrazoi pertsonalak tarteko, beharraren arabera laguntzen du. 📧📞 Julene Frantzesena

Batzuk diote bideojokoak txarrak direla hau-
rrentzat; burua lantzen laguntze-
ko onak direla, berriz, besteek.
Txarrak izan ala ez, denak edo ia
denak, ibili gara bideojoetan noiz-
bait, dena delakoa izanda ere
euskarria. Urko Valverdek dioe-
nez, “gauza guztiekin gertatzen
den moduan, erabileran dago
gakoa”.

**Batzuen ahotik sarritan ent-
zun dugu bideojokoak txar-
rak direla.**

Txarrak direla dioen diskurtsoa da
diskurtso errazena. Zinea edo li-
buruak txarrak direla esatea be-
zala da. Mantxako On Kixote
erotu egin zen zaldunen liburuak
irakurtzen. Ba bai, On Kixote har-
tzen baldin baduzu eredu bezala,

liburuak txarrak dira; Rambo har-
tzen baldin baduzu pelikulak dira
txarrak eta bideojokoetan Carma-
geddon hartzen baduzu ere bai.
Ikerketa serioak egin izan dituzte
eta ikusi daiteke abantaila asko
dituztela.

Gestionet enpresan Serious
Games-ak egiten ditugu, ekin-
tzailetasuna eta halako baloreak
hedatzeko. Hori bai, jokoak dira
eta ondo pasatzeko egiten dira.
Katigatu behar dute, baina ez du
hori soilik eskaini behar.

**Burua lantzeko onak direla ere
diote besteek.**

Finean, fikzioa eta errealitatea be-
reizten jakin behar da. Txarra da li-
buru bat hartu eta bukatzearren
jateari edo lo egiteari uztea. Bizi-
tza liburuaren inguruan munta-

|||DATUAK|||||

|||Jaio. 1977ko urtarrilak 22.

|||Herria. Azpeitia. |||Bizi
tokia. Azpeitia. |||Lanbidea.
Bideojokogilea.

tzen baldin baduzu da txarra.
Baina, ez kontsumo neurtua.

Joko batzuk burua lantzeko bali-
garri dira, baina edukiaren arabe-
ra. Beste batzuk dira erreflexuak
lantzeko. Batzuk esango dute
erreflexuak garatu daitezkeela
tortoloxekin edo sokadantzare-
kin, baina gauza positiboak badi-
tuzte bideojokoek.

**Bideojokoan merkatua zabala
da eta garapena izan du 70. ha-
markadatik hona, ezta?**

Asko aldatu dira bideojokoak. Es-
painiar estatua bideojokoan
ekoizpenean aitzindaria izan zen,
PC klasikoa iritsi baino lehen. Or-

duan ez zegoen halako kompeten-
tzirik eta industria indartsua bila-
katzeko aukerak zituen. Zoritxa-
rrez, aukera galdu egin zen.

Egun, bideojokoak euskarri
gehiagotan daude. Mugikorretan
eta ordenagailuetan daude eta
aukera ikaragarria da. Enpresa
txiki eta handiak daude, eta txikie-
tako askok ezin dute lehiatu
mundu mailako bideojokoan
ekoizpenean.

**Nolakoa da euskarazko bideo-
jokoan merkatua?**

Txikia da. Gainera, bideojokoek
ezin dute biziraun diru-laguntza
publikorik gabe. Ziurrenik, aurtun
gutxiago kaleratuko dira. Dena
dela, bideojoko kontzeptua ka-
kotx artean sartu behar da. Hau-
rrentzako bideojoko asko liburu



interaktiboak dira; horiek kontuan hartuz gero, asko ateratzen dira urtean. Guk Gestionet-en urtero nahi izaten dugu zer bait atera euskaraz, salmenta oso zaila den arren.

Zaila da, beraz, euskarazko bideojokoak saltzea?

Bai, zaila da. Durangoko Azokan saltzen dira gehien, eta kontzientzia duenak erosten du han. Zaila da zer kontsumitu erabakitzen duen jendearengana iristea. Euskarak hor oso zaila dauka.

Eroslea, askotan, ez da bideojotatik ibili den jendea. Guraso berriak dira. Nire adineko zenbaitek ez daki ezer bideojokoez. Bezeroek askotan diote "hau bideoa ala DVDa da?". Adin batetik gorako jendea VHStik aurrera gaizki ibiltzen da.

Zuk, zehazki, zertan egiten duzu lan?

Hasieran aritzen nintzen garapenean eta testuetan. Erdi informatikoa naizenez, kodeketan ere bai. Gaur egun, euskarazko produktuen ideiak lantzen jarduten dut. Bestalde, helburuak lortzen diren ala ez begiratzen dut, kalitatea ziurtatu nahian. Ez da beti nahi dena lortzen, baina beno.

Gestionetek hamar urte egin ditu, eta gutxi gora behera hamar urte daramatzat enpresan. Arazo personalak tarteko, duela bost urte ezin izan nuen Bilbon jarraitu, eta familiak duen denda murgildu

nintzen. Orain laguntzen dut beharrezko arabera; batzuetan gehiago eta besteetan gutxiago. Gestionetek euskarazko jokoaren sorta bat du kalean.

Sortu genuen gama bat euskarazko produktuak bereizteko. Euskal giroko jokoak graziarekin egitea nahi izan dugu, baina funtzionatzen duten joko-mekanika klasikoak erabilita. Txapel saltoak izan da gure joko arrakastatsuenak. Oka jokoaren antzekoa da, baina fitxak txapel formakoak dira. Hortik dator joko sorta horren izena: Txapelgames.

Jokoen artean bertsoekin zein herri kirolekin lotutako produktuak dituzue.

Atzerriko produktua izan da beti bideojokoa, eta erreferente beti haiek izan dira hemen ere. Guk euskaraz egiteaz gain, hemengo gai batzuk ukitzen ditugu. Bertako gaiak gertutasunez ikusteko eta gure erreferentziak ez ahazteko balio dute. McDonalds-ak eta super heroiak alde batera uzteko. **Jendeak ez al ditu futboleko edo Formula 1eko jokoak nahiago?**

Gure jokoek ez dute kontsumo maila handia. Funtzionatzen du gurasoek aholkatutako gaztetxoaren artean. Hori euskarazko produktua gehienekin gertatzen da, zoritxarrez. Ateratzen duzu produktua eta hor zaude gutxieneko bat saltzeko zain.*

arte eta diseinu ikastegia

Dibujo eta eskulanak
(haurrak) 17:30/19:00

Pintura 17:30/19:00

Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

aholkularitza
fisikala
laborala
kontabilak

Gestio lanak
Finanzen administrazioa
Gestio Inmobiliaria

Tlf: 943 157 525 Fax: 943 157 275
Enparen kalea, 45 - luba@euskalnet.net

J A T E T X E A

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 58 08
Faxa.: 943 15 03 62

ORDULARI

Jose de Artetxe, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA

Elkartasunaren aztarnak

Ia bi hamarkada dira gure bailaran uda igarotzeko aukera dutela haur berezi batzuk. Bereziak bai baina ez arraroak. Beraiei ere igerilekuan bainatzea, bizikletan ibiltzea eta hondartzara joatea gustatzen zaie. Eta noski, gure jaki goxoez gozatzea. Kontua da, herriko haurrek ez bezala, anbulatorioa bisitatu behar izaten dutela beren osasun egoera ona dela bermatzeko. Zergatik ote desberdintasun guzti horiek? Ba zoritxarrez gure herriko haurrentzat gauza arruntak direnak beraientzat luxua direlako. Ezinbestekoak diren gutxieneko osasun eta ongizate baldintzak betetzen ez dituzten herrialdetakoak dira: Ukraina eta Saharakoak, hain zuzen ere.

Eta nork egiten du posible haur horiek oporrak inguru hobean igarotzea? Bere borondate onenarekin musutruk haur hauek bi hilabetez etxean hartzen dituzten herriko familiak. Horiek dira, haurrekin batera noski, orain kontatzen ari nintzen errealitatea posible egiten dutenak. Beraien borondate eta egite onik gabe ez litzateke posible haur hauek horrelako aukera paregabea izatea.

Baina krisiak guztiari eragiten dio, eta herri baten elkartasun maila ere neurtzera irits daiteke. Ez da kontua norbaiti zerbait aurpegiratzeari, errealitatea islatzea baizik. Krisi ekonomiko bortitza hasi zenetik Saharako haurren jasotze familien kopurua asko jaitsi da.

Datu hotz honek zer erakusten digu, krisi ekonomiko batean gaudela murgilduta edo baita ere balore krisi batean? Norbanakotasunean oinarritutako jarrerak dira krisiari konponbidea emateko aukera onena? Historiak erakusten digunez, krisiaren eragina jasaten ari den herritarrek bere ziliborrari begiratzen badio soilik krisia sortu duten boteretsuen interesak indartzen eta bultzatzen ari da, elkartasunean eta herritar gehienek interesen alde bideratutako irtenbideak baztertuz.

Rosa Luxemburg alemaniar ezkerreko politikariaren hitzak ondo egokitzen dira bizitzen ari garen garaia ulertzeko, nahiz eta berak l.



|||||||markel mendizabal|||||||

|||Norbanakotasunean oinarritutako jarrerak dira krisiari konponbidea emateko aukera onena?

Mundu Gerrako testuinguruan esan. Luxemburg-ek zioen gerra hartan elkarren aurka borrokatzen zirela langileak gerra sortarazi zuten dirudun eta militarren interesak defendatuz, azken horiek lasai asko etxean zeuden bitartean etorkizuneko irabaziak kalkulatu. A zer paradoxa, ezta? Ba gaur egungo egoerak antzekotasun asko ditu dirudi. Langileek eta erdi mailako herritarrek elkarren aurka lehiatu behar dute ekonomian eta politikan agintzen dutenek ezarritako arauen arabera.

Elkartasuna da bidea

Egungo krisialditik indar berriekin irteteko bide bakarra elkartasuna da. Egoera gogorrenak pairatzen ari direnekin elkartasuna adieraziz eta ez beraiei bizkarra emanda, munduko ekonomia zuzentzen dutenek aurrean jartzen diguten eguzki faltasuen izpiei begira lelotu gabe. Hor dago aukera, eta herri batek bere handitasuna bere elkartasun mailan frogatzen du hoberen. Bejondeiela bere elkartasunean oinarrituta gure herrira haur hauek ekartzen dituzten familie. Beraien adibidea da etorkizun desberdin bat eraikitzeko adibidea. Elkartasun aztarnak zabaldu daitezela! ✨



1.solairuan gaude



sukaldeak

Dena eskura jarriko dizugu.
Obraren koordinazioa gure kontu.



urrategideko

altzariak & sukaldeak


círculo
muebles

Arretxe Kalea 9 - 1. Solairua
20730 Azpeitia (Gipuzkoa)
Telf. 943 85 72 44 · Fax. 943 85 13 14
urrategideko@urrategi.eu
www.mueblesurrategi.es

Erromantikoak

Norbait erromantikoa dela esaten dugu sentibera denean eta hunkidura sortzen duenean besteengan, sentimenduen adierazpena eta hunkidura atsegin dituelarik.

Gaur egun genero bezala hain hedatua dago zein oso bertsio deskafeinatuak ageri diren nonahi. Bihotza leuntzeko produktu findua dugu sarritan, kafea goxatzeko sakarina bezala.

Sorburuan Erromantizismoa mugimendu artistiko eta politiko iraultzailea izan zen. XVIII. mende bukarean eta XIX mendearen zati batean Europan zehar hedatu zena. Norbanakoaren askatasuna defendatzen zuen arrazionalismoaren joera kritikoari eta uniformeari aurre eginez.

John Ruskin pentsalari eta arte teoriko ingelesa izan zen horietako bat. Bere ideien adierazgarri bat monumentu artistiko eta eraikuntza hondarren izaera goraiapatzearena izan zen. Joera mistiko bat ageri du idatzietan, zaharra eta erdi eroritako eraikinaren eta naturako elementuen arteko fusioaren idealizazio moduko bat: "hobe eraikin bat erortzen utzi eta naturaren baitan desagertzen laga, hondarretatik zerbait berria eraiki baino" zen bere leloetako bat. Imaginatzen al duzue? Honezkero zenbat harrapatu ote zituen azpian!

Hala ere paperean sar gintezke unetxo batez. Itxi begiak eta imaginatu Orbaizetan zaudela. Garai bateko arma ola udako arratsaldean, errearen freskuran. Eguzkia indarra galtzen hasi deneko argi printzek harrizko arkuen aldameneko zuloetatik sortzen diren arbola sustarrak gorritzen. Goroldioa eta morteiru desegina, labeetako adreilu zatiak, Iratiko oihanaren mantuak goxo-goxo betiko lotara daramatzen oroitzen arrastoak.

Idilikoa ezta? Hala ere, eraikin hondarrek tristura ere sor dezakete. Naturaren indarra, dekadentzia, bizitzaren iheskortasuna, nostalgia, garai hobekak izan zirenen sentipena



|||||||iosu salegi|||||||

|||Hala ere paperean sar gintezke unetxo batez. Itxi begiak eta imaginatu Orbaizetan zaudela

eta ezinbesteko heriotza. Alde ilun horiek erromantizisten obretako ezaugarri nagusi ziren.

Tragedia eta bizitza gordina

Euskal kulturara etorri eta bidaiatu dezagun pare bat mende atzera. Ez dago musika bezalakorik horretarako. Nahi baduzue, hartu Xabier Letek CD-an ateratako bertso bilduma bikaina eta aukeratu Bilintx eta Barkoxeko Etxahunenak. Biak erromantiko peto-petoak. Bertsoak eta letrak hor daude, beren izakeren adierazgarri, baina eta beraien bizitza? Tragedia latza eta bizi ezina ageri dira beren bizitzetan. Bilintx itsusia, zezenak harrapatu eta herren, gerlan murgilduta bonba batek mutilatua eta hila. Etxahun berriz, desprimatua, familiarekin harremanak hautsiak, galeretara kondenatua bere emaztearen us-tezko maitalea hiltzeagatik. Kaleko eskale eginik bukatu zuen bere bizitza.

Letrak eta doinua dira iraun dutenak baina garaia aldatu da. Izan zenaren edo zirenen hondarrak iritsi zaizkigu, monumentuaren zati xeheak.★





baserritik.com

Nortzuk gara?

BASERRITIK.COM 2011ko azken hiruhilekoan sortu zen proiektua da.

Baserritar ororen konponbidea izan nahi du BASERRITIK.COM proiektuak. Gure egitasmoa baserritar askoren elkarlana bultzatzea da; horretarako, denon jarduera eta indarrak batu ditugu enpresa bakar bezala jokatzu. Produktu aukera zabala eskaintzen duen talde indartsua gara.

Gure helburu nagusia egoera kritikoan aurkitzen den lehen sektorea bultzatzea eta suspertzea da, horretarako azken kontsumitzaileenganako zuzeneko salmenta lantzea da helburua. Gure egoeraren berri eman eta garaian garaiko eta bertako produktuak kontsumitzeak dituen abantailak azaltzea da gure asmoa.

Proiektu honen bidez azoka birtual bat egitea izan da asmoa, horrela kontsumitzaileek baserritarren es-

kutik (bitartekaririk gabe) jasotzen dituzte produktuak beraien etxean. Webgunean baserritar edo ekoizle ugari daudela esan behar da, kontsumitzaileei ahalik eta produktu aukera gehien eman asmoz. Zenbat eta baserritar gehiago elkartu indar gehiago egitea lortuko dugu.

Proiektu honen asmoa in-

gurunea zainduz lana sortzea denez, biztanleriak bertako produktuak eros dituzan kontzientziazatzea ezinbestekoa dela ikusten dugu.

Zergatik sortu da?

Sektorea indartzeko asmoz gain, kontsumitzaileen artean baserritarren eskutik produktuak eskuratzeko

dagoen eskaera izan da proiektua sortzearen arrazoia. Gero eta gutxiago dira beraien ekoizpena saltzeko asmoz merkatu plazetara bertaraten diren baserritar, eta horrek eskaintza jaistea ekarri du.

Nori dago zuzenduta?

Gure bezeroak norbanakoak, jatetxeak, ikastetxeetako jangelak... dira. Hau da, lehen sektoreko produktuez hornitu nahi duen edonor.

Produkturik freskoenak, bildu berriak eta guztiz naturalak eskaintzen zaizkie gure bezero guztiei. Gainera, zuzenean ekoizleei erositako produktuak dira, hau da bitartekaririk gabe, eta nahi izanez gero bezeroarenganaino eramanak. Era berean, BASERRITIK.COM-en dugun produktu aukera zabala dela eta, asteko erosketa guztiak bertan egiteko aukera ematen du.

PRODUKTU AUKERA ZABALA:

Barazki eta frutak
Gazta eta estekiak
Edariak
Arrautza eta esnekiak
Haragia
Okindegia eta gozotegia
Kontserbak eta gozagarriak
Lekak
Fruitu lehorrak

Banaketa: astearte eta ostiraletan.

Urola-Kostan 30 eurotik gorako erosketen banaketa debalde da; erosketa txikiagoak, berriz, 3,3 eurotan.

Ordainketa: kreditu txartelarekin, transferentzia bidez edo jasotzean ordaintzekotan.



Baserritik zuzenean
zure etxera




baserritik.com

GARIAIN GARAICO PRODUKTUAK

GARRAIOA DOAHIN * 30 Euro gorako eskarrietan.




HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**NOLA?** Erabiltzekotan egoki erabili.

Euskarazko testu bat ulertzeko erdarazkoa irakurri beharra badago, zerbaitek huts egiten du. Erabili bai, baina txukun erabiltzekotan. 📌 **Uztarria**

**ZER?** Ez dut ulertu, garbi adieraziko?

Bi argazki horiek Uztarriak ez ditu 'Gora' eta 'Behera' bezala sailkatu. 'Zer?', 'Nola?...' behin eta berriz irakurri bai, baina ganorazko ezer ulertu ez. 📌 **Uztarria***



Mikel Larrañaga.

ESANA DAGO

“Lehen mailarako pausoa emateko lan asko egin behar da”

MIKEL LARRAÑAGA
medalla

“Atzegiren lana, azken finean, pertsonak gizarteratzea da”

“Atzegik hori du ona, pertsona bakoitza banaka aztertzen duela”

ESTHER OLAIZOLA
Atzegiko Urola Erdiko arduraduna

“Hirugarren mailan gazteekin eta herrikoekin aritzea beste erronka bat da”

ASIER OLAIZOLA
Lagun Onaken talde nagusiko entrenatzailea

 **ostadar optika**
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

 **lenteria mertzeria**

jose artetxe, 16

nabar

IRENE ALTUNA
LORADENDA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

 Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Larrialdiak:
943.15.16.40

Bizipoza



txetxu urbieta

Oker banabil hobe baina tristura somatzen dut inguruan, herria triste ikusten dut. Eta arrazoirik izan bada. Urteetan ke beltza botatzen aritu denak, herriko motorra ke beltza dariola utzi du. Motorrik gabe, fama-tu egin den gure BMW ospetsuak, aurrera egiteko komeriak. Mekanikoez ez dute etsiko, saiatu gabe ez dira geldituko, baina konponketa txoferraren borondatearen esku ikusten da. Ezina ekinez egina denez, eutsi, ez etsi.


Ez nuen inoiz pentsatuko egun bizitzen ari

garena bizitzea tokatuko zitzaigunik. Langile izanik aberatsen bizimodua egin dugula ere egia da, eta horrek luzaro irautea ezinezkoa zela ere bai. Iraganaren berri badugu, oraina bizitzen ari gara, etorkizuna nolakoa izango den inork ez daki. Oraina beltza da eta orainak pena ematen dit. Gertatzen ari dena ikusita, bakoitza bere buruaz bakarrik kezkatzen dela iruditzen zait. Bakoitza bere etorkizuna bermatzera mugatzen da. Salvase quien pueda. Ez naiz ni inori leziorik emateko gai baina egoera honetan denon artean

denontzat ona izango den konponbidea lortzeko gai izaten ez bagara, duguna eta izango duguna, ondo merezita izango ditugu.

Ez dut mundu utopikorik amesten, mundu inperfektu hau ez dugu konponduko, aberatsek aberats izaten jarraituko dute baina ea behingoz denok aberats izateko amets egin beharrean, denok duin bizitzeko borroka egiten dugun. BMWen beharrik ez dugu, bizi-poza berreskuratu dezagun.*

IKUSTEKOA!



▲EUSKAL HERRIKO OHITURAK JAPONIERAZ.

Euskal Herriko historia, kultura, kirolak, jaiak, ohiturak... jasotzen dituen liburu bat argitaratu berri dute Hiromi Yoshidak eta Sho Hagiok, japonieraz. Urtero, karnabaletan, egiten du bisita Yoshidak Azpeitira, eta Koldo Aldalur eta haren emazte Olatz Agirrereren etxean hartzen du ostatu. Yoshidak euskarazko eskolak ematen ditu Tokion eta hogeitaka ikasle ditu. **Uztarrria***

███EKAINEN ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...████████████████████



██████████alex silva██████████



Ditxosozko krisia!

LAGUNTZAK. Krisia aitzakia ederra da diru laguntzak murrizteko. Hori bai, ez dira edozein eratan murrizten, beti irizpide politikoak tartean. Jaurlaritzak murriztu dizkie laguntzak euskal komunikabideei, bide bera jarraituko du Aldundiak? Udalak ez du, behintzat, noranzko hori hartu. Eragileen arteko indarren metaketa eta sinergiak aprobetxatzeko une egokia izan daiteke; alderdirik politenari begiratu behar.

Zorionak bikote!

DANTZA. Garazi Gurrutxagak eta Asier Iburguren txapel ugari eskuratu dituzte aurten, dantza sueltoan. Ez dira bakarrak, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan loritz Galarraga eta Laura Olaizola ere ez dira atzean gera-tu. Azpeitiarrok badugu ondo ereindako hazia dantzan.



Zaborrak zabor!

DIRU LAGUNTZAK. Badirudi azken hilabeteetako gai nagusia zaborra dela. Zaborra gora, zaborra behera... eztabaida politikoetan, iritzi artikuluetan, eztabaida publikoetan... Zaborraren gaia politizatu dela garbi dago, inork ez dio horri buelta emango. Baina zergatik?

Izan ere, helburua da garrantzitsuena. Birziklatzea eta ahalik eta hondakin gutxiena sortzea da asmoa. Ez dugu kutsatzeko eskubiderik. Bidea eta bilketa sistema, eztabaidatuko ditugu! Hori bai, boikota ez da bidea.✘

INKESTA

eqingo al zenuke zezenketen gaineko galdeketa?

Ainitze Agirrezabala

AITOR ZINKUNEGI

langilea



“Zestoakoa interesgarria iruditzen zait, baina hori baino

lehenago eztabaida herriratu beharko lukete. Nik nahiago nuke eztabaida hori izatea animalien erabileraren inguruan, festetan, aisialdian, ikuskizunetan...”

JOKIN IRIONDO

langilea



“Bai, ondo legoke egitea, eta herritarren gehiengoak zer

nahi duen hura onartu beharko litzatekela. Interesgarria da zaborraren kudeaketaren inguruan galdetzea ere”.

ITXASO ETXEZARRETA

langilea



“Zezena animalia bezala ikaragarri miresten dut, eta halako bitxo

ederrak ikusteko aukera bakarra zezenketetan dugu. Noski, niri zezenketak, toreatze hori ez zait batere gustatzen”.

JEXUX OTAMENDI

langilea




“Ikuskizun bat jendez betetzen den bitartean, erreferendumeraz

er eramanik ez dago. Zestoarrei esana nien, ‘zuek kristorena egitera zoazte’. Herrian xextra jartzea da”.

Apirileko euriak bezala

Azken hamarkadetako hilabeterik euritsuena izan omen zen pasa den apirila. Ez zen egon lainoek beren arrastoa utzi ez zuten egunik. Bada, horrelakoa dirudite azken aldiaren erakunde desberdinetako agintarien ekonomiaren inguruko hitzek. Guraizeak eskutan dituzten horiek, asteak joan eta hilabeteak etorri, ez da gure bizi baldintzak kaxkartuko dizkiguten neurriak martxan jartzeari uzteko tarterik.

Bitartean, herriko enpresarik handienetako batean greban dira. Arrazoi faltarik ez dute. Ez da kasu isolatu bat, asko dira kinka larrian dabilzanak. Gazteon artean, langabezia tasa %25ekoa da. Kontratu finkoak, berriz, ez dira existitzen. Hamarkadetako borroka lortutakoak egun batetik bestera birrindu ditu Lan Erreformak. Hezkuntzan, murrizketek irakasle gazteak inoiz irekitzen ez diren lan boltsen esperoan utzi dituzte, irakasle direnek geroz eta gela masifikatuagoak dituzte, ikasleek ikas-baldintza kaxkarragoak. Merkatariak ere kexu dira, inoiz baino



yuri agirre

bezere gutxiago baitituzte. Barra atzean lan egiten dutenentzat, apenas egoten da tabernak beteko dituen larunbatik. Zerrenda amaigabea, eta ezetz zioten arren, azkenean beltzez jantzitako gizonak etorriko dira, guraizeen hortzak are gehiago zorroztera.

Ez da makala gainean daukagun euri jasa, eta itxura guztien arabera zaparrada hasi besterik ez da egin. Honen aurrean, salbuespenak salbuespen, bakoitza norbere aterkiak ireki eta geure buruak babestu nahian gabiltzan irudipena dut. Norbere lanpostua, norbere soldata, edota norbere ikasketak. Ez da harrizkoa, egia esan, geure azalean sentitzen dugunak kezkatzen baikaitu gehien guztioi ere.

Baina euri jasadak uholdeak eragiten dituzte, gutxirako balio digute aterkiek. Lehiarkotasun itsuak, indibidualizazioak, norbere zilborrari baino ez begiratzeak, gauden tokira ekarri gaituzte. Beraz, elkartasuna borrokan dabilzane, denon artean buelta emango diogu ta!*

galdetzen hasita, turistentzako pintxo tourra abian den honetan, abuztuaz zenbat taberna egongo da irekita? Uztarria

Bestelako mundua

Beste mundurik ba ote den, ez dakit.

Zientzialari batzuek diote baietz, beste mundu batzuk ere badirela jada, eta ez han urrun, galaxia mugagabe eta kontaezinen “mugez” haratago, baietik eta oraintxe eta hementxe bertan, ikusten eta ukitzen dugun mundu honen beraren barnean (“barnean”, baina ez txikiago), eta gure espazio eta denboratik “at”: unibertso kuantikoak, alternatiboak edo paraleloak, denak batean eta batera. Unibertsoa “multibertsoa” omen: ez mundu bat bakarra, baizik eta mundu berean mundu asko, nahiz eta gure begiek ez ikusi eta zientzia fisikoen oraindik ez esplikatatu. Nola ulertu, esplikatzen ez badigute? Baina ulertzen ez duguna ulertzen duguna baino askoz gehiago dela, hori bai ulertzen dugula! Errealitatea askoz harrigarriagoa da fikzio guztiak baino.

Erljio batzuek –kristautasunak bereziki– diote beste mundu bat izango dela mundu honen ondoren. Beste mundu bat, tristuririk eta oinazirik gabe-



joxe arregi

ko mundua, heriotzarik eta etenik gabekoa. “Zerua”. Fikzioa da? Noski. Irudiak dira. Baina fikzio eta irudi guztiek ametsa, desira, itxaropena adierazten dute. Eta zergatik izango da errealitatea ametsa, desira eta itxaropena baino gutxiago? Baldin eta, orain jada, “beste munduak” badira, zergatik ez da izango gero “beste mundu bat” minik eta negarrik gabea?

Baina ez nuen hitz egin nahi oraingo edo geroko “beste” munduaz edo munduez. Oraingo eta hementxo “bestelako” munduaz hitz egin nahi nuen. Giza espeziea beste espezie guztien diktadore izango ez den mundua. Diruaren eta armen indarra lege izango ez duen mundua. Estatu-mugarik izango ez duen mundua. Mendiak eta lautadak, itsasoak eta ibaiak zeharkatzeko paperik beharko ez den mundua. Batzuk besteen morroi izango ez diren mundua. Denok bankuen morroi izango ez garen mundua. Bestelako mundu bat ezinbestekoa dugu, mundu honetan biziko bagara.*



andoni salegi



Prentsaurrekoak



■■■■■■■■■■ eñaut frantsesena ■■■■■■■■■■

Oso ugalduta dira azken urteotan prentsaurrekoak. Hor ikusiko dituzu, kolore guztietako politikariak, serio-serio aurkezpena egiten bakar antzean, edo serio-serio, atzean jende mordo serio-serio dagoela, aurkezpena egiten. Kolore guztietakoak esan dugu, baina normalean gobernuan daudenak izaten dira gehien agertzen direnak.

Orain edozein ekintzak behar du bere prentsaurrekoa. Jendea informatuta egoteko, esaten dute. Berdin da nola egiten den, norik egiten duen, prestatuta dagoen edo ez,

edo lehendik paperean edozeinen eskura dagoena irakurtzen duten.

Hor ikusten dituzu telebistan, Uztarrria.com-en, edo *Hitzaren* webgunean, eta auzo-lotsa sentitzen duzu batzuetan. Antologikoa da bailara honetako herri bateko turismoa bultzatzeko pin bat (bai, paparrean itsatsita eramateko horietakoa) atera zutela eta egin zutena. Edo errotanda baten erdian egin zuten prentsaurrekoa, puskatutako surfeko tabla batzuk han jarri zituztela eta.

Baina berdin-berdin da guztia. Kontua

telebistan agertzea da, medioetan agertzea, jendeari esatea gauzak egiten ari direla, ez dagoela udala geldirik. Eta ez dira konturatzen jendea aspertu bakarrik egiten dutela, eta desinformatu: pareta batean kartel batek informatu egiten du. Berrogeita hamar kartel badaude inork ez die kasurik egiten. Gainera, egiten diren ekintza guztiak modu berean aurkezten badira, balio bera ematen zaie.

Eta zer esango dizuet, bandaren kalejira batek edo herriko hirigintza planak ez dute garrantzi bera.*

Denda berria zabalik!

pittinka
jolastuz ikasi



Ildefonso Gurrutxaga, 4 Telf: 943 08 09 14 pittinka@pittinka.com



**EIBARKO HIZKUNTZA
ESKOLA OFIZIALA**

Jardinetan, 3
20600 EIBAR

2011/2012

MATRIKULA OFIZIALA Uztailaren 2tik 12ra, biak barne

HIZKUNTZAK: ALEMANA, EUSKARA, FRANTSESA ETA INGELESA

Matrikula egin nahi dutenek Internetez bakarrik egin ahal izango dute **www.eoieuskadi.net** orrian.
Argibide gehiago: **www.eoieibarheo.net** orrian edo **943 200 618** telefonoan.



Geroa jokoan

Herriko enpresa handiak, ertainak eta txikiak astindu ditu krisiak. Corrugadoseko langileen greba egun bat argazkitan jaso du Uztarriak. 📷📹 Ainitze Agirrezabala

▼ EGUNA HASTEKO, ELKARRETARATZEA.

Ekainaren 15ean grebara jotzea erabaki zuten Corrugadoseko langileek, eta aldizkari hau inprimategira bidali den egunean –uztailaren 3an– hamazortzi egun bete zituzten. Mobilizazioak egunero egiten dituzte, eta egun horietako bat jaso du iruditán Uztarriak, ekainaren 28an egindako erreportaje honetan. Eguna hasteKO, Landetako biribilgunean elkarretaratzea egiten dute, ia 200 lagunek, 07:30etatik 08:15era. Argazkian, altzairu fabrikako beharginak, Landetako langilearen irudia atzean dutela.



► BATZARRA.

Elkarretaratzea eta gero, 08:30ean, altzairu fabrikako atarian elkartzen dira batzarra egiteko. Bertan, azken nobedadeen berri ematen dute, eta eguneko egitekoen ardurak banatzen dituzte.





▲ PANKARTAK EGITEN.

Hainbat taldetan banatzen dira langileak, eguneko mobilizazioak aurrera eramateko. Argazkian, Ander Labaka eta Karlos Ibarbia pankartak egiten.

▶ KOTXE-KARABANA.

Ekainaren 28an sekulako kotxe-ildada ibili zen herrian, Corrugadoseko langileek ordura arte egin zuten handiena bai. 40 kotxeiko karabana osatu zuten, protesta egiteko. Corrugados ataritik atera eta Landetatik barrena herri barruan ibili ziren bueltaka; Azkoiti aldera jo zuten, gero.



▲ HAMAIKETAKOA.

Batzuek fruta anoa bat-edo eramaten dute, egurtean jateko. Argazkiko gizon koadrilak fundamentuzko mokadua egiten d





▲ PANKARTAK JARRI ETA ZAINDU.

Herriko hainbat tokitan pankartak jartzen dituzte eta talde bat horiek txukun mantentzeaz arduratzen da: berriak jarri, puskatuta daudenak konpondu... Zenbaitek kendu ere egiten dituzte pankartak eta haien lekuan berriak jarri behar izaten dituzte.



▲ BIZIKLETAZALEAK

Kotxeak ez ezik, bizikleta andana ere ibili zen herrian. Laranja koloreko laneko buzoak soinean eta txilibitua ahoan zutela ibili ziren.

Haurrek munduarekin izaten duten lehen harremanak garrantzia berezia du. Duela 40 urte ingurura arte emakumeek etxean erditzen zuten; gerora, "halabeharrez", etxean erditu duen emakumeak badira; baina, gero eta gehiago dira ospitaleetako aurrerapen guztiak alde batera utzi eta etxean erditzea erabakitzen dutenak.

Horren harira, hainbat testigantza eta esperientzia jaso ditu Uztarriak.

OIER AGIRRE ETA OIHANA ORTEGA

||| **Non bizi dira.** Mutiloa. ||| **Adina.** 28 eta 25 urte. ||| **Seme-alaba kopurua.** Bi. Lurgik hiru urte eta erdi ditu; Kimak lau hilabete.

“Lasai, goxo erditu nuen”

“Oso esperientzia ezberdinak izan dira biak. Lurgi etxean erditu nahi nuen, baina zalantza asko nuen. Emagin bila berandu hasi ginen eta ez genuen inor lortu. Zumarragako ospitalean erditu genuen. Errege eguna zen, hiru emagin txanda pasatu nituen, eta ez zen bature atsegina, humanoa eta goxoa izan.

Nire erritmoa ez zihoan beraiek nahi bezain azkar, eta oxitozina sartzeko konbentzitu ninduten. Orduan, nireak ez ziren kontrakzioak sentitzen hasi nintzen. Erritmoa azkarregia zen, eta azkenean, epidurala eskatu nuen. Dardarka hasi nintzen, Lurgiri bihotza asko moteldu zitzaion... Nik erditzea kanpotik ikusi



Emakume bat umea erditzen, lau-hankan.

Nahiak errespetatu

Etxean ala ospitalean erditu, garrantzitsuena da momentu guztian emakumearen beharrak errespetatzea. 📝📷 Ainitze Agirrezabala



nuen, ez nintzen "aktore printzipala". Lurgitxo 4,2 kilorekin jaioko zen; fetu-sufirimendua izan zuen. Pediatrak eraman zuen, nik ikusi ere ez nuen egin eta garbituta ekarri zidaten. Ez nekien nire semearen usaina zein zen. Askokostatu zitzaidan erditze hura onartzea. Gehiago umerik ez nuela izango esaten nuen. Baina guzti hari esker argi nuen hurrengo umea etxean jaioko zela.

Kima etxean jaioko zen. Hiru emagin etorri ziren etxera: Jeru, Eli eta Raquel. Gogotsu nengoen erditzeko eguna iristeko, beldur bakarra nuen: ospitalera joan behar izatea. Goizeko 06:40an hileko minez esnatu nintzen.

Oso lasai egon nintzen ohean, egongelako kolunpioan... Eguerdi aldera Raqueli deitu nion, zalantza nuen erditze prozesuan ote nengoen. Etorri egin zen, eta takto bat egitea

eskaini zidan. Lau zentimetro nengoen dilatatuta. Lau-hankan egon nintzen ohean egun guztian, kontrakzio irregular eta eramangarriekin, musika entzuten, noizbehinka dutxan, lasai, goxo, intimitatean... eta konturatzerako Kima iritsi zen, postura hartan bertan. 4,5 kiloko morroskoa! Punturik gabe, sintetikorik gabe. Kima bero-beroa zegoen, bustia, odola zuen... usain ederra! *Lortu dut!*, nioen.

Ospitalean Oierrek oso paper pasiboa zuen, ez zekien zer egin. Etxean, berriz, ezinbesteko sentitu zen. Behar nuen errespetua eta laguntza eskaini zidaten guztiek.

Etxean erditzea garestia dela ezin da ukatu, baina norberak nahi duen bezala egin ahal izateak eta erditzean gozatzeak ez du preziorik. Garestiagoa da erditze gogor bategatik errekuperatzea! Zorionez, gauzak asko ari

dira aldatzen: ospitaletan dilatatze bainerak jarri dituzte, erditzeko aukiak, emaginak ere kontzientziatuagoak daude... Eskaera handia dago etxean erditzeko, baina askok ez dute aukerarik emagin bila berandu hasi direlako edo ekonomikoki duen kostuagatik.

Norberak bere bidea hautatzeko eskubi-dea izan behar du. Askotan gizartearen presioa dela eta asko kostatzen zaigu gure nahiari kasu egitea. Ez gaude ohituta ardurak hartzera, nahiago dugu gehiengoak egiten duena egin, epaituak sentituko garen beldur horrekin. Oso garrantzitsua da azpimarratzea ez direla gauza bera gure amonen etxeko erditzeak eta egungo etxeko erditzeak".

AINARA AGIRREGABIRIA

||| **Non bizi da.** Azkoitia. ||| **Adina.** 33 urte.

||| **Seme-alaba kopurua.** Bat. Eki, urtebete.

"Oso basatia izan zen"

"Eragozpen asko, konplexua, zaila izango zela uste nuen, baina haurdun geratu nintze-nean garbi nuen inguru goxo batean erditu nahi nuela, nahi nuen posturan... Uste nuen anbulantziak egon beharko zuela etxeko atarian; etxeak igogailua eduki beharko zuela, baina dena sinpleagoa da. Ugaztunak gara eta gure gorputzarekn sinestu behar dugu; haurdunak ez dira gaixoak. Ospitalean, ikusten denez, aldaketak ematen ari dira; baina, halere, ospitala hotza da. Gainera, ospitalera joan arte ez dakizu norekin, nola... erdituko duzun. Bikotekideak hasieran ez zuen etxean erditu nahi. Haurdunaldia aurrera zihoan, eta gaia sakon landu nuen. Hainbat liburuk, dokumentalek eta webgunek asko lagundu zidaten. Pixkanaka bikotekidea ere konbentzitzen joan zen, eta bosgarren hilabetean baietz esan zidan. Emagin bila hasi ginen, baina ez genuen aurkitu. Foro bati esker Idoia eta Eider emaginekin jarri ginen harremanetan. Konfidantza osoa eman ziguten.

Zapatua zen, mutila lanean zen. Siestara joan, 17:00etan urak puskatu eta nahiko azkar hasi nintzen kontrakzioekin. Mutila jakinaren gainean jarri nuen eta etxera etorri zen. Emaginari deitu nion. Emaginak ez zidan takto bakar bat ere egin. Zer moduz nengoen begiratu eta geure erritmora laga gintuen.

Emagina eta Edurne Salegi sukaldean egon ziren. Sofan etzanda geunden, uneoro mutilari helduta. Kontrakzioetan berari helduta egoteak izugarri laguntzen zidan. Arinagoa zen mina. Emagina, berriz, ateratzen nituen deiadarren bidez orientatzen zen. Tartean

►behin etortzen ziren gugana, monitore batekin umearen bihotza entzuten zuten, eta dena ondo zihoanez geure kasa uzten ziguten. Azkar dilatatu nuen. Gero, lau hanketan jarri nintzen umea kanporatzeko, baina kontua pixka bat konplikatu zen. Umeak burua okertu zuen, eta emaginak izara baten bidez aldaka mugitu zidan, umea bere lekuan kokatzeko. Prozesua pixka bat gelditu eta kanporatzea lau ordu luzatu zen. Goizeko 7etan jaio zen Eki. Mutila eta biok elkarri begira erditu nuen; hari lepotik helduta, pisu guztia bere gain botata, zintzilik bezala. Oso nekatuta ailegatu nintzen bukaerara. Azken deiadarra barru-barrutik atera zitzaidan; emagina, Edurne eta Aritz, guztiak, 'benga, bengal!' esanaz, sekulako indarra sortu zen. Oso basatia izan zen.

Etxean erdituko genuela oso gertukoei, gurasoei-eta, baino ez genien esan. Ez genuen nahi zabaldu, presio soziala ekiditearren. Haurdunaldian oso sentibera zaude eta seguru egonagatik eragin egiten du. Bigarrena eduki beharko banu errepikatuko nuke, ekonomikoki ahal badut, behintzat. Pena da gizarte segurantzak bere gain ez hartzea. Ospitalean erditzea erabakiz gero, 'erditze plana' egiteko aholkatuko nuke. Ospitaleko protokoloa nola den ezagutu behar duzu, zure beharrak eta nahiak zein diren zehaztu eta horiek errespetatu ditzaten.

JUANITA UNANUE

||| **Non bizi da.** Urrestilla. ||| **Adina.** 65 urte.

||| **Seme-alaba kopurua.** Hiru. Nuria, Sonia eta Joseba.

“Nahiago dut ospitalean”

“Hiru haurdunaldi izan ditut eta guztiak garaiz aurretik erditu ditut. Zaharrena, Nuria, ospitalean erditu nuen; justu-justu ailegatu nintzen erditzeko-gelara, hilabete aurreratu zitzaidan.

Sonia zazpi hilabeterekin jaio zen. Urak puskatu eta Valentina Agirre emaginaren etxera joan ginen. Dilatatuta nengoen, umea jaiotzear zen eta ez genuen inora joateko astirik. Senarraren arreba zaharrena, Eustaki, Garmendi auzoan bizi da eta haren etxera joan ginen emagina eta hirurok. Ama bezala zen koinata niretzat, konfidantza osoa nuen beragan. Azkar jaio zen, erditze oso ona izan nuen, baina umea 77 egun eduki zuten inku-bagailuan. Ez zuen pisua irabazten.

Zaharrena komunioia egiteko zegoela, 1984an, hirugarrenaren esperoan nengoen.



1



2

1. Ainara Agirregabiria, Eki semea eta Aritzekin. 2. Juanita Unanue seme-alaben umetako argazkiak esku artean dituela.


Orduko hartan ekografiak-eta egin zizkidaten. Igandea zen, kinto bazkaria genuen Loiolan. Erdiminekin hasi nintzen mezetan, baina kanpora atera beharrean bukatu arte itxoin nuen. Gero eta larriago, sartu kotxean eta koinataren etxera joan ginen.

Gizona baserrira joan zen poltsa hartzera eta koinatu-koinatak familiako medikuari abisatzera. Alboan bizi den koinata etorri zen niregana. Txixagurea nuen, komunera joan eta indarra egin nuenean buruak irten zuen. Hura zen koadroa. 'Ai, nik zer egin behar dut', esaten zidan koinatak, nerbiosoa. Buruaren parean eskua jarrita egin nuen oherako bidea eta 2.solairuan bizi den Aizarnako Bittoriri abisa-

tzeko esan nion koinatari. Hura ere sekula erditze bat ikusi gabea zen, baina bi toallekin heldu, nik indarra egin eta hala atera genuen umea. Hanka artean umea nuela heldu zen medikua. Gero, Valentina Agirre emaginari deitu zioten. Umea amaren bular gainean jarri gabe eta tapatu gabe nolatan genuen esan zigun, hoztuta zegoen, more-more eginda. Zilbor-hestea moztu eta Donostiara eraman zuten umea aztertzer. Gau artan bertan ekarri zidaten bueltan.

Jesuitekin sakristian erditu banuen zer? Lehenbizikoa ospitalean erditu nuen, beste biak etxean. Nik orain 65 urte ditut, eta dudan esperientziarekin ospitalean nahiago.*

Noren eskuetan?

Jerusalem Rodriguez eta Marian Zabaleta emaginak dira; lehenak emakumeei etxean erditzen laguntzen die; bigarrena Zumarragako ospitaleko erditze zerbitzuan lana egindakoa da.  **A. Agirrezabala**

Gipuzkoan, duela urtebetetik, emagin talde bat emakumeei etxean erditzen laguntzen aritzen da. Urnietako anbulatorioko emagina da Jerusalem Rodrigez, eta Azeptiko osasun zentroan ere lana egina da, bost urtez. 1980ko hamarkadan ere etxez etxe ibili zen, beste bi emaginekin batera, eta orain berriro ekin dio egiteko horri. “Etxean erditzen laguntzen emagin oso gutxi gaude Gipuzkoan, hiru baino ez, eta batzutan Bizkaiko eta Nafarroako emaginak etortzen dira hemengo emakumeak artatzera”. Hilean, batez beste, bi erditze izaten dituztela dio: “anbulatorioan eta ospitalean egiten dugu lana eta ezin dugu emakume gehiago jaso”.

Haurra etxean izatea arriskuetsua dela uste du askok. Rodrigezen esanetan, “etxean erditu ahal izateko haurdunaldiak normal joan behar du. Arriskurik gabeko,

edo arrisku baxuko haurdunaldia bada, emakumearen indarrarekin erditzea etxean ondo joango dela aurreikusten dugu. Eta etxean ez da arazo gehiago sortzen”.

Ospitaleetan “gauzak asko aldatu” direla eta asistentzia “oso ona” dela dio. “Erditzean norbere nahiak errespetatzea jasotzen du ospitaleko protokoloak”. Nolanahi ere, etxean emakumeak “segurtasun, lasaitasun eta babes gehiagorekin bizi du prozesua. Inimitate gehiago dute; beraiek aukeratzen dute erditzean nor egongo den beraiekin –bikotekidea, lagunak...–; aurrez badakite zein emaginekin erdituko duten... Hori oso garrantzitsua da. Mina ere ez da bera etxean edo ospitalean. Kanpoko estimuluak kentzen ditugu –argi goxoa, gutxi hitz egin, posturak bilatu– eta ingurune horretan hormonek primeran garatzen dute beren lana”.

Hiru emagineko lan-taldea da eta etxean erditzea 1.800 euro kostatzen da. “32. astean-edo tailer bat egiten dugu, elkar eza-gutu eta beharrak sakontzeko. Eta, 34. astetik aurrera bisita bidez edo telefonoz jarraipen oso zehatza egiten dugu, dituzten kezka eta zalantzak argitzeko eta bideratzeko. Erditzean artatzen ditugu, eta ondoren beste bi kontsulta eskaintzen ditugu”. Etxean gauzak ondo joateko erreferentziak baditugu, eta oro har osakidetzako erditze-bidea jarraitzen dugu”.

Ospitalean nahiz etxean umea izan, “erditu aurreko akonpainamendua oso garrantzitsua” dela azpimarratu du. “Goierriko emakume batek, esaterako, ospitalean erditu zuen, baina akonpainamendu hori nahi zuen. Etxean erdiminekin hasi eta bost zentimetro dilatatu zenean ospitalera

joan ginen, eta gutako emagin bat berekin egon zen erditzean”.


Ospitaleko emagina

Azeptiko anbulatorioko emagina da Marian Zabaleta, eta aurretik 20 urte baino gehiago eman ditu Zumarragako ospitaleko erditze zerbitzuan lanean.


Urteen poderioz, ospitaleetako zerbitzuan “aldaketa handiak” eman direla adierazi du. “Emakumeak orain parte hartze eta babes handiagoa du eta gehiago errespetatzen da”.

Lehen, hainbat neurri “inposatuta” zeudela dio, eta “langile eta paziente bezala horrela onartzen” zirela. Esaterako, orain 25 urte inguru, umeak amarekin kontaktu gehiago izateko, seaskak gelan uzten hasi ziren, ba askok atzerakada bezala ulertu zuen hori. Aldaketa ez zen hain erraz onartu”.

Azeptian lanean daraman bi urteotan etxean erditzeko asmoa “pare bat emakumek baino ez” dute izan. “Ospitalean erditu behar dugula onartuta dugu, eta Osakidetzak zerbitzu hori ez duenez eskaintzen, etxean erditzeko oztopo asko ikusten dute. Emaginak bilatzea ere zaila da, gutxi daude. Jendearentzako ez da oso erraza erabaki hori hartzea. Osakidetzak babestuko balu, eta profesional horiek beste testuinguru batetan baleude, agian erditze gehienak etxean izango liriteke”.

Etxean eta ospitalean erditzearen artean “tarte handia dago; agian, ondo erabiltzen ez” dena. “Nik ospitalean lana egin dut eta askotan emakumeak denbora baino lehen joaten dira. Autonomia asko galdu dugu eta dena urgentziaz erabiltzen dugu. Emakumeak ulertu behar du profesionalak laguntzeko hor dituela, baina erditzea norbere lana da. Gaizki ulertuta bezala dugu zerbitzu hori. Protagonista dira beraien erditzean eta bakoitzak eraman eta errespetatu behar du norbere prozesuaren eritimoa. Orduan, nik uste dut hortik hasi behar dugula aldaketak egiten”. 



Emakume haurdun bat, jolasleku bateko banku batetan eserita, patxadan.  **Ainitze Agirrezabala**

Kontua beltz

Ekonomia gaiak puri-purian dauden arren, arrotzak egiten zaizkio askori; Arzallus eta Garate kazetariak modu ulerterrazean lantzen saiatzen dira. 📎 A. Agirrezabala

Laino ilunak ikusten/goizean goizez zeruan/leioak bustirik daude/hotzak hiltzen jeiki naiz...; zihoen Delirium Tremens taldearen *Laino ilunak* kantaren letrak, 1980ko hamarkadan. Hitz haiek idatzi zituztenean ere izango zen krisirik, nahiz eta gaur eguneko hau ezagutu dutenek horrelakorik inoiz ez dutela bizi izan esaten duten.

Aitziber Arzallus (Azpeitia, 1984) eta Miren Garate (Azpeitia, 1985) *Berria* egunkariako Ekonomia Saileko erredaktoreak dira, eta aspaldian laino ilunak besterik ez dituzte begiztatzen. Garai batean, egunkarietako erredakzioetan politika gaiak baziren gailen, gaur egun ekonomia albisteak dira puri-purian daudenak. Hori horrela, Rikardo Arregi Saria jaso berri du Garatek, *Berria*-ko *Egitura* ekonomia gehigarrian idatzitako bost artikulurengatik. Kazetari berriarenarekin saritu dute, eta krisiaren alderdi ekonomikoa eta soziala uztartzen asmatu duela nabarmendu du epaimahaiak. "Gehienei lehorra gertatzen zaien gai bat samur, zehatz eta modu ulerterrazean azaltzen du. Estilo bizia eta idazkera erakargarria baliatzearen poderioz, gaia bera ere erakargarri bihurtzen du".

18 urterekin hasi ziren Arzallus eta Garate *Berria*-n praktiketan. Hasieran "urruneko gaia" zitzairen arren, sailean denbora eraman ahala "gaiak menderatuz" doaz, "pixkanaka". Azkenaldian nahi baino lan gehiago duten arren, jende askori arrotzak egiten zaizkio

Espanian
Langabezia tasa
%24,44koa da;
Euskal Herrian,
aldiz, erdia, gutxi
gorabehera;
%13koa



Landeta, Urrakiko bidetik ikusita.

ekonomia gaiak. Adierazi dutenez, "ekonomiak egunerokoan eragin eta garrantzia handia du herritarrengan, eta jendeak ere ekonomia albisteak gehiago leitzen ditu". *Berria* egunkariak orrialde kopurua gutxitu badu ere, "ekonomiako albisteek lehen zutena baino pisu handiagoa eta tarte zabalagoa" dute.

Domino efektua

Ekonomia sailean lanean hasi zirenean "gaurkotasuneko gaiak soldata igoerak eta lan gatazkak" zirela kontatu dute. "Duela lau urte enpresa bat itxia kristoren albistearen. Halakoetan, bertara joan eta orri osoko erreportajea eskaintzen genion. Orain, enpresa sekulakoa bada, 400 langilerekin, landu dezakezu sakon; baina Corrugados, esaterako, tartean behin ateratzen dugu, labur bat ematen diozu, baina ezin zaio orrialde oso bat eskaini. Ba al dakizu zenbat gauza dagoen?".

Ekonomia gaietara dedikatzen diren kazetari bezala diote egungo Euskal Herriko egoera ekonomikoa ez dela "batere erraza", baina "Espainiarekin alderatuta hobeto" gaudela. Espanian langabezia tasa %24,44koa da; Euskal Herrian, aldiz, erdia, gutxi gorabehera, %13koa; baxuena Gipuzkoan dago. "Familiako kide guztiak langabezia dauden milioi bat familia baino gehiago dago Espainian; hemen halakorik ez dugu. Noski, Euskal Herrian pobrezia mugan dauden



Arzallus eta Garate, Landetako biribilguneko langilearen irudia atzean dutela. ■■■ Ainitze Agirrezabala

familien kopurua asko hazi da. Okerren Sakana eta Nerbioi ezkerrekoa daude; ondoen Goierri, CAF eta Irizarrekin. Azkenean, domino efektua bezala dena eroriz joan da: industria, eraikuntza, altzari sektorea, auto-salmenta, dendak... Eta, beldurra ere badago, norbera ondo egon arren. Nik uste dut oraindik ez dela bukatuko krisia. 2013an soldata goeregi buruz, behintzat, ez dugu idatziko”.

Europara begira, “Alemania ondo” dagoe-lagaitzatu dute; “irabaziak ari da ateratzen krisitik. Frantzia ez dago bereziki ondo; Italia eta Txipre gaizki daude. ‘Siestaren’ herrialdeak doaz gaizki; Mediterraneokoak, bero egiten duen lekuak”.

Nazioarteko bihurtu

Krisia medio, “hilabete batetik bestera, alderdi batek muturreko neurriak hartu” izana ere aipatu dute: “Jubilazioa 65 urtetik 67ra atzeratu; soldatak %30 jaitsi eta lanaldia %10-20 igo, BEZa igo... Kristoren lan-erreforma bultzatzen dute, baina beraiek aitortzen dute helburua ez dela inondik inora enplegua sortzea. Orduan, zertarako? Politikoei sinesgarritasunik ez dute; Raxoik ez, behintzat”.

Aurrerantzean, langabezia tasa igotzea ez, baina “lana prekarizatuko” dela aurreikusten dute. “Soldatak jaitsi eta lanik ez duzunean, edozerri heltzen diozu; jendea prest egongo da egunean hamar ordu sartu eta hilean 1.000 euro kobratzeko”.

Korapilo gaizto honetatik ateratzeko “irtenbidea Espainiatik kanpoko merkatuetara –India, Txina, Alemania– esportatzea” dela adierazi dute. “Enpresariak diote hori dela bidea, nazioartera ateratzea; ez dute beste hitzik”, dio Garatek. “Espainiako merkatuarekiko mendekotasun osoa duten enpresak gaizki doaz. Noski, hor kontua zaildu egingo da, denentzako izango baita irtenbidea nazioartea; ez hemengoentzako bakarrik, frantziarrentzat, portugaldarrentzat... Orduan, gakoa lehiakorrek izatea da. Hemengo enpresak txikiak dira banaka kanpora ateratzeko; eta hor elkarlan bat egin beharra dute; elkarren kontra aritu beharrean, elkar hartu eta kanpoan lehiatzeko, taldean”. ✪

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

Koh Tao
OSAGARRIAK
Foru Ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

domusa

|||alaitz olaizola|||



|||gurutze olaizola|||

Sutan zer erre

G

urutze. Sanjuanak pasatu berri ditun, eta zenbat oroitzapen etortzen zaizkidan... Gogoan dinat nire alabak txikiak zirenean, sanjuan gaua ospatzera ikastolara joaten ginela. Alabak, urte guztian egindako lanen liburuak sutara botatzeko amorratzen, eta ni neu, udara zalea-edo naitzelako, erabat "animosa".

Alaitz. Neuk ere badizkinat oroitzapenak. Txikitan sua antolatzen geninan auzoan, pentsa! Olazko Amaren plazan. Han ibiltzen gintunan batetik egurrak ekarri, bestetik kartoiak... Behin, egur zati handi batekin anaiari kopeta ireki eta sekulako puntu pila eman zizkiotenan... Hura ez zaidan sekula ahaztuko.

Gurutze. Hire anaia ere ederki gogoratuko dun! Sorginen gaua dela esaten diten... Sorginen bat tartean izango zunan.

Alaitz. Niregatik ari haiz, ezta? Parean jarri zunan, eta horrelakoetan badakin... Ene, gaur egun, egur zaharra eta kartoia ez, beste gauza mordo bat erreko niken sutan!

Gurutze. Egia esan, neuk ez dinat sekula ezer bota sutara, eta orain, pentsatzen jarrita, ez zakinat zergatik. Utzi iezadan momentu batean pentsatzen!

Alaitz. Adibidez, gainean dugun ditxosozko krisia botako niken gustura sutara. Txinparta eta tiro ederrak izango hituzke! Eta horrekin batera, egoera honetara bultzatu gaituzten hainbat "elementu" ere.

Gurutze. Zer? Barka iezadan, baina oraindik pentsatzen ari naun.

Alaitz. Ea ba... Emakumeak iraintzen, jipoitzen edo hiltzen dituzten kabroi sortarekin ere su ederra egitea zagon.

Gurutze. Orain esandako horrekin, pentsamendutik atera naun bat-batean. Ez zagon

|||**ALAITZ.** "Emakumeak iraintzen dituztenekin ere su ederra egitea zagon"

|||**GURUTZE.** "Horiek aterako duten kea ere, zeharo kaltegarria izango dun!"

eskubiderik! Horiek aterako duten kea ere, zeharo kaltegarria izango dun!

Alaitz. Arrazoa dun. Akabo San Juan bezperako suaren magia! Erraustegi baten pare... Hori ere ez dun ba kontua... Suari begira bakean egon nahi dinat.

Gurutze. Bai, hobe dinagu egun hori bere horretan uztea, bestela, daukan xarma kenduko zionagu. Nire amamak esaten zinan: sua eta ura belauetatik behera hobe!

Alaitz. Hire amamak arrazoi! Bai, San Juan haserretzea ere ez zaigun komeniko...

Gurutze. Aaaaa! Oraintxe gogoratu naun zergatik ez nuen sutara ezer botatzen. Ingu-ratu eta suak deitzen zidanen: "Hator, hator...". Sorgina ote naun?

Alaitz. Galdetzea ere!★





Euskara Zerbitzua

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

Komunikazio Zerbitzua

- Diseinua:

- Logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
- Seinaleztapena

- Komunikazioa:

- Prentsa bulego lanak
- Komunikazio kanpainak
- Mailing-ak...



||| SOLUZIOAK |||||


HITZ GEZIDUNAK

A	I	●	A	T	E	K	A	L	A	S	●
E	R	E	●	A	K	A	K	●	O	A	M
R	●	A	D	N	A	L	A	I	H	T	●
T	●	A	S	I	A	●	A	U	N	P	I
L	E	●	D	●	K	A	R	I	L	●	●
U	K	A	L	●	A	Z	N	A	B	A	U
K	A	K	S	A	R	N	E	A	●	●	●
U	M	A	D	●	A	Z	A	●	●	●	●
K	A	K	I	N	K	Z	A	K	I	K	A
●	Z	●	F	●	I	●	E	●	●	●	●



HITZ GURUTZATUAK

A	O	K	I	N	O	N	A	K	●	●	●
R	●	A	R	E	G	O	L	A	●	●	●
R	U	Z	U	R	I	R	●	U	●	●	●
A	L	U	A	T	A	E	A	T	●	●	●
T	A	I	Z	●	Z	O	H	A	●	●	●
A	L	E	A	R	●	A	R	S	E	N	A
B	R	●	A	I	A	R	A	U	K	A	R
A	D	A	N	L	A	R	I	●	K	●	●
A	R	I	T	I	A	R	●	●	●	●	●



||| ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Uztailak 20 (ostirala) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardo sorta ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ||| ZEIN DEN ADIERAZI.

||| ZURE IZEN-ABIZENAK

||| TELEFONO ZENBAKIA

||| UZTARRIAREN EKAINEN ARGAZKI LEHIAKETA |||||

ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?

TEILATUTXOA FALTA DA

IRABAZLEA



Martin Alegria Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 140. irabazlea. Odriozola upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Martin Alegria, saria eskuetan duela.

ODRIOZOLA ARDOAK

ardoetan aukera zabalena
bertako produktuak eta gutxiak

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16
Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103



|||ELKARRIZKETA||||||| ruben fernandez (medalla)

“Jendaurrean kantatzeari beLdur pixka bat badiot”

|||Abesteko afizioa txikitatik du Fernandezek (Azpeitia, 1989). Adele abeslariaren kanta bat grabatu eta Youtubera igo zuen. Orain, "gitarra jotzen ikastea eta bere kantuak sortzea" du xede.

Noiztik duzu afizioa?

Txikitatik kantatu izan dut etxean. Osabarengandik datorkit afizioa. Harekin egoten naizen aldiro kantatzen aritzen gara. Bera gitarra jotzen eta ni ahotsa jartzen.

Adeleren *Someone Like You* kanta grabatu duzu.

Lagunek esan zidaten kanta grabatu eta sare sozialetara igotzeko. Hasieran, lotsatu egin nintzen. Gero, koadrilako batek esan zidan bere mutil-lagunaren estudioara, Zubi Zaharrera, joateko grabatzera. Guztiz ondo ez zen atera, baina grabatu genuen.

Besterik grabatzeko asmorik ba al duzu?

Bai. Ari naiz kanta batzuk pres-



|||INKESTA|||||

Igande, jai egunetan plaza kotxerik gabe egotea nola baloratzen duzu?

Neurria ona da. %32,75.

Lehenera bueltatu. %16,09.

Neurria zabaldu. %51,16.

|||Oraingo galdera. Nahikoa da pintxo-poteoa hilean behin?

tatzen. Pare bat, momentuz. Datzenak etxean grabatuko ditut.

Musikan pausoak ematea gustatuko al litzaizuke?

Lehenengo gitarra jotzen ikasi behar dut. Gutxienekoa da. Neure abestiak egiteko beharrezkoa izango dut-eta instrumenturen bat jotzea. Hasi nintzen gitarra jotzen, baina laga egin nuen. Orain, abuztuan, ama eta biok hasiko gara berriz ikasten.

Zeure kanta egitea diozu...

Bai, ea hasten naizen abestiak sortzen, neure estilokoak baina euskaraz egiten ditudan.

Musikaren munduan, nora iritsi nahi zenuke?

Momentuz, ez da nire lehentasuna kantuan aritzea. Denborapasa da. Jendeak animoak eman eta babesten banau ere, ez daukat laguntzarik. Esan nahi dut, ez daukat ez talderik, ez horretan aditurik aldamenean, eta horrek prozesua mantsotzen du.*

|||EFEMERIDEAK|||||||

1588

Emakumeen kontrako ebazpena.

Herrian ziren emakume publikoak zigortzea erabaki zuten, asko zirelakoan.

1638

Defentsarako arma gehiago izatea.

Derrigorrezkoa ikusi zen, herriak etsaia lurreratu asmoz itsasertzera hurbiltzen ari zela esanaz albiste ugari jasotzen baitzuen. Domingo Kortabarria alkateari artxiboko zilarrezko dukatak ematea erabaki zuten kanpoan ziren herriko soldaduei behar zutena eskaintzeko.

1865

Karmelo Etxegarai jaio zen.

Idazlea izan zen, besteak beste.

📍 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak.

Herria historian zehar liburua.

|||Egilea: Imanol Elias Odriozola.

|||Argitaratzailea: Uztarria Kultur

Koordinakundea.*

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye

|||eguneko albisteak |||irakurleen erantzunak |||eguneko argazkia |||bideoak |||blogak |||inkesta |||agenda |||bitxikeriak
|||'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak,
hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... |||uztarria herri aldizkari denak;
PDF formatoan ere bai |||eguneko efemerideak |||gida komertziala...

|||sartu sarean, eta hartu parte |||egunero **7.000** orrialderen bisita



Ardo beltza

Frogatuta dago ardo beltza neurritz eta une egokietan edateak ez duela inolako kontraindikaziorik pertsona osasuntsu batengan. Tokikodun substantziarik ez du. Kalte egiten du gehiegi edaten denean bakarrik. Eguneroko errazioa pertsona heldu batentzat hiru laurdeneko botila ardoa izan daiteke; horrela, gibelean dugun entzimak alkohola aldatu eta osasungarria den produktua sortzen du.

Mahatsaren azalak eta pipitek duten taninoak liseriketari laguntzen dio, suspergarria da eta anti-septikoa. Ongi asko balio dezake hesteetako infekzioak, tifus sukarra edo kolera saihesteko. Beraz, segurtasun handiko neurria da jatorduetan ardo beltza edatea, duen alkoholak eta taninoak gaitza sortarazten duten germenak ezabatzen dituzte eta.

Litroko hiru gramo tanino du. Ardo gorriak eta zurriak, berriz, askoz gutxiago. Hargatik gomendatzen dugu beltza edatea beherakoa dugunean. Ardo beltzak B1, B2, B6, B12 eta C bitaminen kopuru txikiak ditu, eta horiez gain mineral gatzak: kaltzioa, fosforo eta magnesioa. Nahiz eta tentsioa igotzen duela esan, ez da egia; bestalde, diuretiko da.

Beti izan kontutan ardoaren lehen kopa egarria kentzeko dela, bigarrena poza emateko, hirugarrena gozatzeko eta laugarrena erotasuna sortzeko.*



Julian bereziartua

OIHANA ARANBARRI Loiolako turismo bulegoko langilea



- 1. Turistarik gogaikarrienak?**
Alemaniarrak, hotzak dira.
- 2. Adeitsuenak?**
Holandarrak, irekiak dira.
- 3. Xuhurrenak?**
Denak harritzen dira parking-a debalde delako.
- 4. Urteko sasoirik**

- estresagarriena?**
Uda, jende pila izan zen iaz.
- 5. Zer adineko jendea etortzen zaizue?**
Astean jubilatutako taldeak; asteburuan familiak, bikoteak.
- 6. Zerk txunditzen ditu bisitariak?**
Ingurune berdea, lasaitasuna.

- 7. Zer aholkatzen diezue?**
Autopista alde batera utzi eta Urola bailaran barrena sartzea, herriak ezagutzeko.
- 8. Anekdotarik?**
Uda-eta gero galdetu, orduan bai, izango ditut.*
- Ainitze Agirrezabala



AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

DI-DA diseinua
zure lorategi edo terrazara diseinua
90€ren truke
www.kimubat.com



SEGUROS BILBAO | Grupo CATALANA OCCIDENTE

ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK:

- ETXE ASEGURUAK
- AUTO ASEGURUAK
- DENDA ASEGURUAK
- BIZITZA ASEGURUAK eta abar.

AURREZKIENTZAT PRODUKTU INTERESGARRIAK

Joxe Migel Muguruza
(Urola Erdirako agente eksklusiboa)

Tel: 652.776.909
jm.muguruza@segurosbilbao.com
www.segurosbilbao.com

Sorterritik mundura

Bidaiatzeko egiten du lana, eta bidaiatu bizitzeko.

📍 Eneritz Albizu

Jende distiratsu eta zoriontsua eskutik helduta, jende distiratsu eta zoriontsua barrezka. Honela dio REM taldearen "Shiny happy people" kantak, Alkortaren kanta kuttunenak. Ez da harritzekoa abesti guztien artean hau hautatu izana, bere izaerarekin bat baitator: ondorengo lerroetan eza gutuko dugun emakumea alaia, berritsua eta irekia da, "shiny happy person" bat.

Nor da Eider Alkorta gehienentzat?

Azpeitiarrak Politika eta Administrazitza Zien-

tziak ikasi zituen EHU. Zeregin askotan jardun ondoren, gaur egun, irakaslea da Gizarte Langintzako fakultatean eta hainbat komunikabidetan kolaboratzaile gisa egiten du lan.

Alkortak bazekien txikitatik Gizarte Zientziekin loturiko zerbait egin nahi zuela. Historia zen institutuan gogokoen zuen ikasgaia eta hautaprobak egin ostean ez zuen zalan-zaririk izan ikusi zuen bere etorkizuna.

Nor da Eider Alkorta guretzat?

Azpeitiar honen izena entzutean, gogora

bere lanbidea etortzen bazaigu ere, bada beste Eider bat: telebistako pantaila eta egunkarien orrien atzean ezkutatzen dena.

Elkarrizketatuari buruz gauza bakarra aipatu beharko balitz, bidaiatzeko grina litzateke. Bere zaletasunen artean lehena da, eta aitortzen duen moduan, "aurrezki guztiak horretan xahutzen" ditu. Alkortak badaki batzuentzat ez dela ulerterraza urte osoko soldata hamazortzi egunetan gastatzea, baina beretzat ez dira hamazortzi egun: "Urte erdia bidaia prestatzen joaten da, eta beste erdia pasata-

ko denbora gogoratzen. Gainera, bidaia bat ez da amaitzen etxera itzultzean, bizitza osorako da: bertan eginiko lagunak, ikusiriko eta ikasiriko guztia...".

Leku asko ezagutu ditu, baina bat aukeratzekotan, Namibiarekin geratzen da: "Baliteke ez izatea inoiz ikusi dudan lekurik ederrena, baina zirrara gehien eragin didana da". Bost hegaldi hartu ondoren iritsi ziren hara eta, "gaueko koloreak ikusteagatik soilik jada merezi du bidaia: segituan deskonektatzen duzu". Alkortaren esanetan, "guztiok ezagutu beharko genuke txoko hau, buruari buelta batzuk ematera behartzen zaitu: Txorutzen itzuli ginen, jendea oso gutxirekin da zoriontsu".


Kuba eta Tailandia ere buruan zein bihotzean marka utzi dioten lekuak dira, "bizitzari buruz asko irakatsi" diotenak. "Hala ere, nahitaez, bi hilabeteren ondoren bizitza normala egiten jarraitzen duzu. Haien gisara jokatzeko, han bizi behar da, han jaiotzen zarelako; guztia bere testuinguruan jarri behar da".

Euskal Herrira hurbilduz, Azpeitia eta Bilbo dira bere herri kuttunak. Alkortak azaltzen duenez, "azkenean, ez diogu erreparatzen herriaren edertasunari, ni bizi izan naizen bi herriak dira eta oroitzapenengatik maite ditut, bihotza erdibituta dut". Lasai egon eta pentsatzeko lekuei dagokienez, Sopelana eta Getariako hondartza hautatu ditu; eta parandarako, Zestoa: "Bost tabernen inguruan sortzen den giro hori izugarria da".

Zinema eta literatura ere gustuko ditu politologoak, baina bere lana dela eta, ia ez du abagunerik hauetaz gozatzeko: egunkariak irakurtzen pasatzen du denbora gehien.

Nor dela dio Eider Alkortak?

Bere burua animalia batekin identifikatzeko eskatzean, txakurra hautatu du. Pertsona ba-



1. Namibia, 2009. urtean. 2. Kenya, 2010. urtea.
3. 2007. urtean Egiptora egin zuen bidaian ateratako argazkia. 4. Txikitan, 1980an.

Berezitasunak

||| "Oso zaila da ezagutu ditudan kultura guztietatik bakarra hautatzea, denek dituzte berezitasunak, baina oinaze handiena laga didatenak era laburrean deskribatu beharko banituzke, ez nuke zalantzarik izango: Kubatik antolatzeke eta irribarre egiteko gaitasuna aipatuko nituzte, Asiatik adeitasuna eta zintzotasuna eta Afrikatik duintasuna".

tengan gehien baloratzen duen ezaugarria leialtasuna da, eta uneoro saiatzeko alderdi hori kontuan izaten. "Txakurra oso leiala da, babesa ematen dizu beti, inongo baldintzarik gabe: nire lagunak niri horrela ikustea nahiko nuke". Elkarrizketatuak txakur bat izan zuen txikitan, Xarpi, eta haren uneoroko laguntasuna da beretzat leialtasunaren isla.

Leialtasunaz gain, bizitzeko gogoia transmititzen du Alkortak. Txakurrek bezala, aske ibiltzeko gogoia: azpeitiarra jada ari da bere hurrengo bidaia prestatzen.*

Antonio Rafaniello
HORTZ KLINIKA



Kolegiatu zk. 389

Aseguruekin ere lan egiten dugu.

**-Laser bidezko
hortz-zuriketa**

-Hortz-inplanteak

Enparan kalea, 8 - 1.
Telef. 943 81 67 36
AZPEITIA

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Uztailaren 25ean izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07

Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70	943 08 06 88
-----	----------	--------------

FARMAZIAK (UZTAILA)

EGUNEZ

1-3-5-12-24	2-7-8-13	4-11-23-28-29-30	6-9-14-15-25-31	10-16-17-18-19-20-21-22
Aranburu (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).
943 811350	943 080258	943 811949	943 811274	943 815974

GAUEZ

1-10-11-13-26	2-3-4-5-6-7-8-30-31	9-14-15-27	16-17-18-19-20-21-22	12-24-25	23-28-29
Ruiz (Azkoitia).	Jacome (Azpeitia).	Jaen (Azkoitia).	Aranburu (Azpeitia).	Gisasola (Azkoitia).	Azpiazu (Azkoitia).
943 851966	943 080258	943 850660	943 811350	943 851235	943 852989

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 UDALTZAINGOIA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATEGIA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 ZAPO TXOKO ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



URAREN KUDEAKETA.

Uraren kudeaketaz Gipuzkoako Ur Partzuergoa arduratzen da apiriletik, eta uraren eta zaborraren ordainagiriak erakunde horrek bidaliko ditu aurrerantzean. Bulegoa Erdi kalean dute.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

ANE LAZKANO

auto-lasterketetako kopilotua

“Estreinaldia herrian egiteak ilusioa egiten zigun”

Ez zaizkio erraz iritsi 16 urteak. Lizentzia atera eta Urrakiko igoeran debutatu berri du. Kotxeak bere pasioa dira. 📌 A. Agirrezabala

Nondik norakoa duzu kotxe zaletasuna?

Attitteri rallyetara joatea asko gustatzen zitzaien, eta aita eta osabak txikitatik berekin eraman izan ditu. Urrakiko igoerako egunean jaio nintzen eta ospitaletik etxerako bidea ere Urrakitik barrena egin genuen, aita hala nahita. Umetatik, berriz, Euskal Herri osoan, Frantzia, Katalunian, Errioxan... izan gara rallyak ikusten, autokarabanan. Duela zazpi-zortzi urte, berriz, aita lehiatzen hasi zen. Odolean daramadan zerbait da.

Motorraren mundua gustuko duzu...

Gehiegi. Batxilergoko lehen maila gainditzen ez badut elektromekanikako modulua egiteko asmoa dut. Kotxeetan asko fijaszen naiz.

Urrakiko igoeran egin zenuen debuta.

16 urte betetzean hasi ginen lizentzia ateratzea pentsatzen, baina amak ez zuen nahi. Geroago, baietz esan zuen eta azkar sinatu genuen papera. Lehenago ere zirkuituetako erakustaldietan ibilita nago, baina ofiziala Urrakikoa izan da. Estreinaldia herrian egiteak ilusio berezia egiten zigun aitari eta biori. Ford Sierra cosworth batekin atera ginen.

Zer moduz estreinaldia?

Azpeitiko baino bi aste lehenago hasi nintzen aginduak ematen ikasten. Erraza ez da. Unea heldu arte lasai nengoan, baina gero triapak asko mugitu zitzaizkidan. Irteerako une hori... bomba bat da. Ikaragarri gozatu nuen.

Aurrera begira zer asmo duzu?

World rally car bat-edo, gustura probatuko nuke. Aitak ez duela luzaroan segiko dio ahizpa txikiak, eta 16 urte betetzen dituenean biok elkarrekin aterako garela.

Mundu garestia izango da-ba?

Oso. Beti esaten da elurretako kirolak direla garestienak, baina hau hautsiko duenik ez da. Lasterketetan izena ematea 180 kostatzen da; gasolina, gurpilak, golpeak, matxurak...aparte. Lehenago karrera bukatzen zuten artean diru bat banatzen zuten, baina krisiarekin hori ere kendu egin dute.

Mutilen kirola dela pentsatzen dutenak, beraz, oker daude.

Egunetik egunera gero eta neska gehiago ateratzen da kopilotu eta auto-gidari. Hernaniko neska bat world rally karreretan ere hasi da. Hobekuntza da hori.*



1. Aita-alabak Villanuevan, Jacan. 2. Txikitan, Frantziara rallya ikustera egindako irteera batean eserleku bakarrekotako ibilgailuan ateratako argazkia. 3. Joxe Labakaren auto gainean eserita, osabak oparitutako buzoa jantzita.



Anais nin-en euskalduna

Anais Ninek kontaktzen du arratsalde euritsua zela. Kaleek, ispiluak baino areago, dena islatzen zutela. Euskaldunak hogeita hamar libera zituela poltsikoan eta aberats ikusten zuela bere burua. Jendeak esaten zion beraren modu inozo eta gordin hartan margolari handia zela; ez ziren konturatzen postalak kopiatu besterik ez zuela egiten. Hogeita hamar libera emanak zizkioten azken koadroaren ordainetan, euforiko zegoen, eta zelebratu egin nahi zuen. Plazer esan nahi duten argi gorri bila zebilen, haruntz eta honuntz.

Ama itxurako madamek ireki zuen atea, eta, momentuan bertan, gizonaren oinetako-ei begiratu zien, handik ateratzen zituen-eta kontuak zenbat diru pagatu ote zezakeen plazeraren ordainetan. Ondoren, pozikago, euskaldunaren praketako botoietan iltzatu zituen begiak. Ez zuen aurpegiak aztertzeke gogorik. Interesik ez. Bizi osoan, gizonaren anamiaren atal hareekin besterik ez zuen harremanik izan. Haren begi handiek, distiradun oraindik, praka barrura begiratzen zuten, bertan sartu nahiko balute bezala, gizonaren ondasunen tamaina eta pisua neurtu ahalko balute bezala. Begirada profesionala zen. Beste putetxe batzuetako nagusiak baino zorrotzagoa zen jendeari laguna inguratzen. Praken bitartez, bezeroa neurtu ezinik ez zuen, eta hari zegokion eskularru perfektua eskaini. Plazerik ez zegoen eskularrua zaballegia bazen, ezta estuegia bazen ere...

Euskaldunaren prakei ondo begiratu arte ez zuen Madame handi hark ezagutu. Orduan, irribarre egin zion. Euskaldunak, egia da, bat egin zuen Madamekin xehetasunetan, eta Madamek bazekien ez zela erraz konformatzen. Oso zakil berezia zuen. Buzoi erako aluaren aurrean, matxinatu egingo zen. Tutu lehorgarri bati egin behar bazion aurre, atzera egingo zuen. Oso *connaisseur* ona zen, gourmet hutsa emakumezkoen bitxiontziei zegokienean. Madamek beste batzuei



|||||||miel a. elustondo|||||||


|||Ematen zuen gorputz-atal hura ez zegoela eroso itxita bazegoen, mirets zezaten behar zuela

baino polikiago aztertu zuen. Gustatzen zitzaion euskalduna, eta ez profil klasikoa zuelako, motza sudurra, almendra itxurakoak begiak, ile beltz distiragarria, ibilera mantso arina, keinu nagiak. Ezta bufanda gorriagatik ere, edo txapelagatik, buruan alde batera eroria. Are gutxiago emakumeekin erabiltzen zituen modu seduzitzaileengatik ere. Haren pendentif erregezko hura zen, konkor noble hura, zakil haren erantzuteko gaitasun nekazina, lagunartekotasuna, alaitasun eta bertasuna. Madamek ez zuen inoiz horrelako zakilik ikusi. Batzuetan euskaldunak mahai gainean jartzen zuen, zaku bete diru bertan utziko balu bezala, eta kolpeak eman zituen ingurukoek arreta jar zezaten nahiko balu bezala. Naturaltasunez ateratzen zuen, beste gizon batzuek bero daudenean berokia erantzten dutenean bezala. Besterik gabe. Ematen zuen gorputz-atal hura ez zegoela eroso itxita bazegoen, egurastu beharra zuela, mirets zezaten behar zuela.✱



IRABAZI AFARI BAT ZURE KUADRILLARENTZAT

Sagardoarekin lotutako hitz,
esamolde edota esaldiak biltzen ari gara.
Inoiz entzunak, zein asmatuak.

Bidali nahi adina proposamen:
lehiaketa@sagardogorenak.com  #gorenak

SARIA: 8 lagunentzako afaria GORENAK taldeko zuk nahi duzun sagardotegian.


Epea: Uztailaren 5a baino lehen. (Uztailaren 8ko Berrian jakingo da irabazlea).
Epaimahaia: Joxerra Garzia, Arantxa Iturbe eta Xabier Paya.



WWW.SAGARDOGORENAK.COM

GUZTIOK NORABIDE BEREAN
EGITEN DUGU ARRAUN.
SEKULAKO EMAITZAK LORTUZ.
LEHEN-LEHENAK IZATEKO.
HORREGATIK DARAMAGU SAGARDOEN
EUSKAL SELEKZIOAREN TXAPEL BELTZA.





Santi Lazkano Kirolak

Jose Artetxe, 1
Tel/Fax: 943 81 16 50

UDAKO BEHERAPENAK



 **horzkari**
hortz osasun klinika



Abuztuan goizetan zabalik

09:00etatik 13:00etara

Ondo pasau festak!

www.grupohorzkari.com

Iberotarren plaza, 4 behea
20730 azpeitia gipuzkoa
t. 943 81 44 50
f. 943 81 50 52

